

Bai baina ez baina bai



Bai baina ez baina bai

Jatorrizko izenburua: *Fi de culs a Mallolca*

Egilea: Pasqual Alapont

Itzultzailea: Antton Olano

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Elkar

MIKEL GARMENDIA

"Hobe lukete idazleek gure benetako arazoez hitz egingo balute, beren ipuinetan hainbeste sorgin eta iratxo harrotzen ibili ordez". Halaxe botatzen digu Víctor-ek, eleberri honetako protagonista eta aldi berean narratzailea denak. "Gure benetako arazoak" daude jasota ikasturte-amaierako bidaia kontatzen duen eleberri ekintzaz bete honetan: maitasun-abenturak, maitasuna bera, dibertitzeko moduak, leialtasuna... Hori guztia dago, bai, eleberri honetan jasota eta gazte baten ikuspegitik ikusia eta gazte batek kontatua.

Ezustez betea dago kontakizuna hasieratik beretik, itsasontzia Palmarantz abiatzen denean han konturatzen baitira ikaskide bat, Marion, lehorrean gelditu dela. Ikasketa-bidaia horretan bi irakasle izan dituzte arduradun: Carme (Izen Sintagma) eta Antonio (Niri Toni Deitu Zuetako Bat Naiz Eta). Ezin iradokorrakoak ditugu goitizen biak: Izen Sintagma heziketa zorrotzaren aldekoa eta Niri Toni Deitu Zuetako Bat Naiz Eta, berriz, heziketa malguaren aldekoa. Heziketari buruzko edo, hobeto esanda, hezitzearen zailtasunei eta erronkei buruzko ardurak eta kezka dago atzean, egileak Víctor narratzailearen ahotik helarazten diguna. Heziketa-modu zehatz baten alde agertu ordez, alabaina, horretantxe gelditzen da kontua, deskripzio hutsean edo, nahiago bada, irakasle bien karakterizazioan. Bi irakasleen arteko harremanak ere ezusteko galanta emango digu kontakizunaren amaiera aldera eta horrek, gazteon arteko abenturen artean tartekaturik, handitu egiten du eleberriaren tentsioa, planteamendu originala izateaz gain. Esan bezala, Víctor izango dugu narratzailea eta protagonista nagusia. Haren hitzetan kontatua heldu zaigu istorioa eta bi hitzetan esateko, umorez eta samurtasunez beteriko anti-heroi gisako bat dugu bera, hasieratik beretik halako xera hartzen zaiona.

Eleberriaren jatorrizko izenburua *Fi de culs a Mallolca* dugu eta euskarazkoa, berriz, *Bai baina ez baina bai*. Euskarazkoa Marionak eleberriaren zehar maitasunari buruz emandako definizio originaletik dator: "-Horrelakoa duk maitasuna: bai baina ez baina bai". Jatorrizko izenburu topikoa baino aproposagoa iruditzen zait euskarazko bertsiorako aukeratutakoa (gaztelaniazkoak ere hala egin du).

Esan bezala, "gure benetako arazoak" kontatzea izan du helburu eleberriak, eta gazte batek kontaturik, gainera. Lortzen duela esango nuke bai edukiz eta bai formaz ere, nahiz eta egilearen (helduen) kezka nagusia ere, heziketarena, presente dagoen. Nolanahi ere, autoritatearen eta askatasunaren inguruan gogoeta egiteko aukera ematen digu era umoretsu eta samur batean kontatutako istorio honek.